2014-I-31
Número **420.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

# astekaria

## EDITORIALA

### Harrokeria

**Opor fiskalen deituriko aferan gertatu zitekeena gertatu da. Etortzekoa zela zalantza izpirik ez zegoen. Halaxe iragarri genuen aspalditik, eta gauzatu da. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko abokatu nagusiak EAEko foru-ogasunei 50 miloi eurotako isuna ezartzea eskatu du enpresei emaniko opor fiskalengatik. Isuna baieztatzen bada, dolu kasuagatik demanda penala sartzea erabaki dugu sindikatuan. Nahikoa da jarrera bidegabeak hartzeari. Erantzukizunak eskatzeko garaia da. Bai ala bai!**

**Eskutik eskura joan dira afera honetan Confebask patronala eta aurreko legegintzako hiru foru-ogasunak, elkarren artean duten burdinazko itunaren erakusgarri agerikoan. Are eta gehiago, foru-ogasunetako agintari batek publikoki adierazi zuen moduan, ogasunek patronalak esandakoa egin zuten, besterik ez nonbait. Konplizitatea eta ezkutukeria izan dira nagusi prozesu guzti honetan, eta Europak aspalditxo sosak bueltatzeko emandako aginduari muzin egin diote, harrokeriaz, makina bat denboran, isunaren kopurua egunez egun igotzen joan delarik.**

**Arduragabekeria galant honek ondorio latzak ekar ditzake euskal herritarrontzat, honezkero oso murritzak diren hainbat aurrekontusailak, are eta gehiago murriztu daitezke, nahiz eta hasera batean Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak garrantzia kendu honelako diru kopuru itzelari. Beste arduragabekeria galanta. Zigorgabetasun handiarekin aritu diren patronala eta arduradun politikoei euren erantzukizunei aurre egiteko garaia heldu zaie, bereziki isuna bere horretan baieztatzen bada. Beste behin salatu beharra dugu gu guztion diruen maneiuan agintariek darabilten gardentasun eza eta parte hartze sozialaren ukazioa, patronalarena salbu, noski. Eta, esan bezala, jokabide hori salatzeaz gain, ordua iritsi da kargu hartzeko eta erantzukizunak argitzeko. Tamalez, hau beste adibide bat da kontrol publiko ezean nolako begiruneaz tratatzen gaituzten herritar gehienoi frogatzeko. Utikan!**

Lankidetu!

## Abenduaren 10ean sinadurak biltzeko epea hasi zenetik, Legegintzako Herri-Ekimenak 14.300 sinadura lortu ditu

# BIDE ONETIK

**14.300 sinadura.** Hori da argitaratzen dituzten baldintza-orri guztietan gizarte-klausulak legez jasotzea helburu duen Legegintzako Herri-Ekimenaren kanpaina hasi zenetik orain arte bildutako sinadura kopurua. Erronka honakoa da: kanpainaren hasieratik –iragan urteko abenduaren 10ean– eta sinadurak biltzeko epea amaitu bitartean –lau hilabete– 30.000 sinadura biltzea Euskal Autonomia Erkidegoan. Kontutan eduki behar dugu, Hego Euskal Herrian sufritzen dugun zatiketa administratiboa kausa, Nafarroan beste Legegintzako Herri-Ekimen bat aurkeztu behar izan zela. Kasu honetan, Parlamentuak abenduaren 16an tramitera onartu zuen arren, sinadura bilketa epea ez da hasi, prozedura arazo teknikoak kausa.

ELA-Zerbitzuak federazioko idazkari nagusi Mirari Irurek sindikatu osoa egiten ari den lana azpimarratu nahi du. "Kanpainaren aurkezpenean argi utzi genuen gai honek lehentasun osoa izango zuela ELAren jardueran, eta argi dago hori horrela izaten ari dela. Ehunka lantokitan jarri ditugu sinadura mahaiak, kalean ere gaude sinadurak biltzen, informazio kanpaina handia egin dugu... Eta, oraingoz, bide onetik goazela esango nuke. Zaila da orain arte ekimena babestu duten lagunen kopuru zehatza ematea, baina *Astekaria* honen itxieraren egunean, urtarrilak 31, 14.300 sinaduratik gora genituen. Zorionez kopurua handitzen doa egunez egun, eta laister kopuru berri eta handiago bat emateko moduan egongo garela uste dut".

Ekimena Gasteizko Parlamentuan eztabaidatzeko 30.000 sinadura inguru behar diren arren, kopuru hori gainditzearen garrantzia nabarmentzen du Irurek. "Noski, gure lehen helburua gutxieneko 30.000 sinadura horiek biltzea da. Baina, kopuru horretatik haratago, gure asmoa ahalik eta sinadura gehien biltzea da. Azpikontratazioa egun langile-klaseak sufritzen duen arazo larrienetakoa da, eta gizarte osoa horretaz ohartaraztea da gure nahia".

"Ekimen honen bitartez gutxieneko batzuk bermatu nahi ditugu: langile azpikontratatuen subrogazio-eskubidea, enpresa-aldaketak gertatzen direnean; gutxieneko lan eta soldata-baldintzak; aurreko bi baldintzak edo enpresariak langileekin dituen betebeharrak bete ezean administrazioak enpresarekin duen merkataritza-kontratua amaitutzat jotzea... Honekin bat datozen lagun guztiek hamaika motibo dituzte ekimena sinatzeko. Animatu!".




## EL 'CASO' NAVARRO

En la Comunidad Foral de Navarra todavía no se ha abierto el plazo para el inicio de recogida de firmas, debido a que faltan solventarse algunos aspectos técnicos sobre los soportes en los que se realizará la recogida. Hay que recordar que el Parlamento de Navarra admitió a trámite la Iniciativa Legislativa Popular el 16 de diciembre.

# YA VAMOS MILES DE FIRMAS

El proceso de recogida de firmas para la Iniciativa Legislativa Popular continúa adelante. Un mes y medio después de que comenzara de forma oficial el plazo para la recogida de firmas –el 10 de diciembre del 2013– , ya son 14.300 las personas que han dado su apoyo a esta iniciativa. Todo el sindicato está haciendo un gran esfuerzo en esta campaña que tiene como objetivo luchar contra la explotación y en favor de los derechos del personal subcontrado, tanto en el ámbito público como en el privado. En la imagen un grupo de militantes de ELA recogiendo firmas en el centro de Bilbao. La campaña continúa adelante, y cada vez son más las personas que la han secundado con su firma.



IRITZIA / OPINIÓN

# FIRMAR UNA ILP: OPORTUNIDAD PARA DECIDIR



*En la imagen Maricruz Elkoro, Mirari Irure y Maite Leizegi, responsables de ELA-Zerbitzuak, el día que tramitaron la propuesta de Iniciativa Legislativa Popular en el Parlamento Vasco.*

El pasado mes de diciembre de 2013, desde ELA pusimos en marcha una iniciativa legislativa popular para dar solución a algunos de los muchos problemas con los que se enfrenta la clase trabajadora tras las últimas reformas laborales y de negociación colectiva. En concreto, esta iniciativa tiene en su punto de mira a la subcontratación de la administración pública, una forma de explotación lamentablemente muy extendida y que hoy afecta a un número de trabajadoras y trabajadores incluso superior al que trabaja de forma directa en la administración.

En ELA somos muy conscientes de que en estos tiempos los problemas del mundo del trabajo no empiezan y acaban en la subcontratación. Sin ir más lejos, las y los propios trabajadores de lo público, por ejemplo, llevan años viendo cómo los gobiernos, de aquí y de allá, les niegan su derecho a la negociación colectiva a decretazo limpio. Por no hablar del sector privado, que está viendo cómo la patronal, fruto del desmesurado poder otorgado por las sucesivas reformas, condena a sectores enteros a condiciones de miseria: bien porque imponen convenios con condiciones regresivas, bien porque se valen del fin de la ultraactividad de los convenios para dejar de aplicarlos. De todo modos, aunque solo aborde parte del problema, nos parece importante empezar a dar pasos en el establecimiento legal de unas garantías que fijen unas condiciones mínimas en uno de los ámbitos más precarizados del mercado laboral: el de las y los trabajadores de las subcontratas públicas. No debemos olvidar que la administración en todas sus formas (gobiernos, diputaciones, ayuntamientos, organismos autónomos y empresas públicas) es responsable directa de las condiciones de vida y de trabajo de toda esa gente. Si, además, tenemos en cuenta que es la misma administración la que tiene capacidad para poder blindar determinados derechos laborales, tenemos todos los elementos de la ecuación: problema, responsable y solución.

Las condiciones de trabajo de las plantillas subcontratadas en el ámbito público vienen determinadas, además de en los convenios colectivos de aplicación, en los pliegos de condiciones que rigen esas contratas. Pues bien, lo que pedimos a través de esta ILP es precisamente que la ley establezca la obligatoriedad de que todos los pliegos de condiciones que se publiquen en las administraciones públicas recojan una serie de cláusulas sociales:

1. **El derecho de subrogacion:** para hacer frente y evitar la destrucción de empleo que las empresas acometen aprovechando el cambio de empresa.

2. **Condiciones de trabajo mínimas:** las del último convenio sectorial vigente. Como solución a la posible caída de los convenios por el fin de la ultraactividad impuesta por las reformas.

3. **Sanciones para las empresas que incumplan** las anteriores obligaciones y cualquier otra de naturaleza laboral y de seguridad social para con las y los trabajadores.

Para que esto sea posible es necesario que en la CAPV nuestra iniciativa reciba el apoyo de al menos 30.000 firmas y de 7.000 en Nafarroa. Desde ELA llevamos más de un mes recogiendo firmas y tenemos dos meses por delante para seguir socializando y concienciando sobre esta forma de explotación que se esconde tras el eufemismo de externalización. La iniciativa está teniendo muy buena acogida, tanto entre la afiliación como entre el resto de trabajadoras y trabajadores, así como en la ciudadanía en general. Una vez concluyamos con la recogida de firmas, las presentaremos ante la Mesa del Parlamento que deberá tramitar el texto como proposición de ley para su debate en la Cámara. Por lo tanto, los partidos políticos, representados en los grupos parlamentarios, van a tener ante sí una oportunidad sin igual para dejar fuera de este ámbito laboral que depende de la administración las consecuencias de la reforma que tanto dijeron querer evitar.

Son tiempos difíciles para la clase trabajadora, qué duda cabe. La gravedad de la situación es de tal calado que, ante los continuos ataques a nuestros derechos laborales y sindicales, en muchos casos trabajadores/as y sindicatos estamos limitando nuestra actuación a la reacción defensiva. Por eso, más que nunca, tiene un gran valor que seamos capaces de pasar de la reacción a la acción, de lo defensivo a la propositivo. Una Iniciativa Legislativa Popular es la única forma de participación popular que nos permite ser parte del proceso de elaboración de leyes que rigen y regulan nuestra vida. Es una expresión de democracia participativa que fomenta la participación de la ciudadanía en la vida pública. Y a eso en ELA le damos mucha importancia. Cuando el calamar se ve amenazado por otras especies utiliza su tinta no para huir, como se piensa comunmente, sino para alterar los órganos de detección de sus enemigos. Salvando las distancias, la tinta de nuestros bolígrafos puede ser a nuestra vida pública, lo que la tinta del calamar a su vida de cefalópodo. Uniendo nuestras firmas podemos hacer leyes, leyes que cambien lo que algunos tenían previsto para nosotros y nosotras. ¡Elijamos decidir por nosotros y nosotras mismos!

***Mirari Irure, secretaria general de ELA-Zerbitzuak***

## Gune plataforma osatzen duten sindikatu eta eragileek hainbat protesta antolatu dituzte

# POBREZIAREN KONTRAKO KANPAINA




Gurean gero eta larriagoa eta handiagoa den arazo baten aurka borrokatzea: pobrezia. Hori da otsailean eta martxaoan zehar Gune plataforma osatzen duten sindikatu eta eragileek antolatu dituzten protesten helburua. ELAko Batzorde Eragileko kide Leire Txakartegik nabarmentzen duenez, protesta ekintza horiek otsailean eta martxoan izango dira.

"Otsaileko ostegunero mobilizazioak egingo ditugu; 6an Gasteizko Legebiltzarraren aurrean; 13an Lan Departamenduak Bilbon duen egoitzan; 20an Lanbidek Donostian duen egoitzan; 27an, berriz, hitzordua Iruñeako Parlamentuaren aurrean da. Martxoaren 3an protesta ekintza egingo da Bilbon, egun horretan antolatu den ekonomia foroaren bueltan. Martxoan bertan, 10etik 20ra mobilizazioak eskualdeetara zabalduko dira. Azkenik 22an bat egingo dugu Madrilen antolatu den *Duintasunaren Martxarekin*".

Kanpaina honen leloa *Nos arrastran a la pobreza y a la precariedad. Euskal Herriak bere bidea* izango da. Txakartegik aipatzen duenez, "azken urteetan ia bikoiztu egin da gurean pobrezian dauden lagunen kopurua. Benetako gizarte-emergentzia kasu baten aurrean gaude; kanpaina honekin arazoa zabaltzeaz gain, arazo larri honen kontra borrokatzeko balio dezaketen politika publikoak bultzatu nahi ditugu".

### GUTXIENGO ERRENTAREN ALDEKO ELKARRETARATZEA BILBON

Bestalde, Gune plataformak deituta, urtarrilaren 28an protesta ekintza egin zen Lanbidek Bilboko Alameda Mazarredon duen egoitzaren aurrean. Bertaratu ziren lagunek Gutxiengo Errentaren beharra aldarrikatu zuten, eta Lanbidek jartzen dituen oztopoak salatu. (Ezkerrean, bilkura horren argazki bat).

*La plataforma Gune ha organizado una serie de movilizaciones para febrero y marzo. El objetivo, denunciar que la pobreza crece día a día y exigir medidas para luchar contra esta lacra*

# ANALIZANDO LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA

**En el acto que ELA celebró el 22 de enero en Azpeitia, dentro de la campaña sobre salarios y empleo, Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, analizó las diferentes fórmulas que en la actual coyuntura está desarrollando nuestro sindicato en torno a este tema. "ELA está dando todo en su intento de firmar los mejores convenios para la clase trabajadora, desarrollando en cada caso la estrategia que consideremos más eficaz". Las siguientes noticias en torno a la negociación colectiva son un breve pero significativo resumen de la fase en la que nos encontramos actualmente.**

## ANSA SE BLINDA ANTE LA REFORMA LABORAL

El Comité de Ansa, proveedor de asientos de la multinacional alemana Mercedes-Benz en la factoría de Gasteiz, ha alcanzado un acuerdo para las condiciones de trabajo que regirán el periodo 2013-2015. El acuerdo llega tras casi un año de duras negociaciones, y el comité de empresa, liderado por ELA, ha conseguido todos los objetivos que se marcó al inicio de las conversaciones.

Antes de esta acuerdo, las condiciones de trabajo estaban plasmadas en un Pacto de Empresa; ahora pasarán a plasmarse en un Convenio Colectivo Estatutario, convenio blindado ante la reforma de Rajoy con las cláusulas que la Ley nos permite. El acuerdo recoge importantes incrementos salariales para los 3 años (2013: 2%; 2014: IPC+1,1% y 2015: IPC+0,5%) así como la ultraactividad quedará fijada en 24 meses. Además, el convenio recoge la imposibilidad de inaplicación del mismo de manera unilateral y el no arbitraje obligatorio en caso de discrepancia entre las partes.

ELA ya ha conseguido blindar las condiciones en los tres proveedores donde tiene mayoría dentro del parque de proveedores de Mercedes-Benz, hecho que nos hace ser optimistas para continuar el camino emprendido y así poder blindar las condiciones de trabajo de todos aquellos trabajadores que asuman este reto junto con el sindicato.

Este acuerdo, además, nos muestra claramente que existe alternativa y que a través de la organización y sindicalización de ámbitos en los que no controla la patronal SEA es posible mejorar las condiciones de trabajo de nuestra gente. ELA ha conseguido romper todas esas barreras mediáticas que insisten en la no existencia de alternativa a la reforma laboral. Existe alternativa y en Ansa también se ha conseguido. Un convenio blindado ante la reforma laboral.

## ESKOLA GARRAIOKO BEGIRALEAK, GREBA MUGAGABEAN

Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza publikoan eskola umeak autobusean eta jolastokian zaintzen aritzen diren begiraleek greba mugagabea hasi zuten urtarrilaren 27an. Sektorea osatzen duten langileek hainbat lanuzte egin dituzte azken hilabeteetan lan hitzarmen duina lortzeko daramaten borrokan. Hala ere, patronalaren jarrera itxia ikusirik euren borroka eta mobilizazioetan sakontzea erabaki dute.

Orain arte egindako lanuzte partzialek bezala, greba honen jarraipena oso zabala izaten ari da: Bizkaian %95, Gipuzkoan %65 eta Araban %55. Gatazkarekin amaitu aldera, langileek ere Eusko Jaurlaritzaren inplikazio handiagoa exijitzen dute. Horregatik iragan astean hainbat protesta ekintza egin ziren Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzaren aurrean.




## GREBA GIPUZKOAKO GARBITASUNEAN

ELA, LAB, ESK eta UGT sindikatuek deituta urtarrilak 29 eta 30 greba egunak izan ziren Gipuzkoako garbitasunaren alorrean. ELAk, sektorean gehiengoa duen sindikatuak, zoriondu egin nahi ditu garbitasuneko langileak. Izan ere deialdiak oso jarraipen zabala izan zuen. Horren lekuko, sektoreko enpresa nagusiek –Eulen, Pilsa, Clece edo ISS, esaterako– bat egin zuten deialdiarekin.

Langileek 2009. urtetik daramate hitzarmenik gabe, sektoreko patronalek uko egin diotelako lan-baldintzak duinduko dituen inolako akordio negoziatzeari. ELAk salatzen duenez, patronalak lan erreforma baliatu nahi du langileei xantaia egin eta lan-baldintzak are eta gehiago narriatzeko. Egoera horren aurrean, langileek grebara jotzea beste aukerarik ez dute izan.




## MOVILIZACIONES EN LAS RESIDENCIAS DE BIZKAIA

Después de 13 meses de negociación y 6 jornadas de paro, la patronal sigue anclada en su posición inicial en el conflicto de las Residencias de la Tercera Edad de Bizkaia, sobre todo en aspectos como el arbitraje obligatorio o la posibilidad de modificar unilateralmente las condiciones laborales de sus trabajadoras y trabajadores. Por ello ELA ha decidido continuar con las movilizaciones. De este modo, nuestro sindicato ha convocado cuatro jornadas de paro en febrero: los días 6, 7, 27 y 28.

Además, cinco residencias y centros de día –las residencias Marcelo Gangoiti, Sanitas Barakaldo y San Jose Etxe Alai y los centros de día de Igurko y Trápaga– han optado por intensificar las movilizaciones. De este modo, estos cinco centros han convocado dos semanas de huelga para marzo que, en el caso de que no hubiera acuerdo, se ampliarían al mes de abril. Por otra parte, no se descarta que en los próximos días se sumen más residencias a los paros del mes de marzo, ya que se celebrarán asambleas en más centros de trabajo.

## JAURLARITZAK ENPLEGUA SUNTSITZEN JARRAITZEN DU

ELAk salatzen duenez, Eusko Jaurlaritzak iragan astean EAEko funtzio publikoan diharduten 80.000 langileentzat dekretuz ezarri zituen neurriak –lanaldia eta aldi baterako ezintasun egoeretarako borondatezko hobekuntzak– agerian uzten dute negoziatzeko duen borondate eza eta murrizketa politikak itsu-itsuan jarraitzen dituela. ELAren ustez, bi neurri horiek inposatu izana agerian uzten dute Eusko Jaurlaritzak eutsi egiten diola murrizte politikari, enplegua suntsitzeko erabakiari eta Madrilgo politikak bere horretan betetzeko asmoari.

Azken dekretu honek urratu egiten du Mahai Orokorrean 35 orduko lanaldiari buruz hitzartutakoa; iaz lanorduak luzatu zituen dekretuarekin jarraitzea esan nahi du –milaka lanpostu publiko suntsitu zituen dekretua–, eta aldi baterako ezintasunari dagokionez Rajoyk 2012ko uztailean gai honekiko ezarri zuen dekretuaren kopia hutsa da.

## UGT Y CCOO FIRMAN LA PÉRDIDA DE LA ULTRAACTIVIDAD DEL CONVENIO DE CONSERVAS DE BIZKAIA

El Juzgado de lo Social número dos de Bilbao ha dictado sentencia sobre la ultraactividad del convenio de conservas de Bizkaia, sentencia en la que se niega dicha ultraactividad debido a que los sindicatos CCOO y UGT firmaron en 2012 el Convenio Estatal de Conservas con una disposicion que niega eficacia a los provinciales. La sentencia señala, por una parte, que en el artículo 4 del citado convenio provincial, al referirse a la ultraactividad, se aprecia una inequívoca voluntad de las partes de mantener la vigencia del convenio en régimen de ultraactividad.

Sin embargo, por otra parte, señala que el Convenio Colectivo Sectorial Estatal de octubre de 2012 en su Disposición Transitoria 4ª, al regular la estructura de la negociación colectiva, establece la prioridad aplicativa del Convenio Estatal o de los Convenios de Empresa y por tanto niega eficacia al Convenio Provincial.

Esta sentencia muestra claramente cómo, gracias a la reforma de la legislación vigente, un Convenio Estatal puede cerrar las puertas de la negociación provincial solamente con recogerlo así en sus disposiciones sobre estructura de la negociación colectiva.

## EL ERE DE CORRUGADOS DE AZPEITIA, EN LA AUDIENCIA NACIONAL

El 27 de enero se celebró en la Audiencia Nacional el juicio sobre el ERE de extinción de Corrugados Azpeitia. El comité de empresa asegura que el Grupo Gallardo, al que pertenece Corrugados, está desmantelando algunas estructuras internas de la acería, sacando material, repuestos o producción terminada.

Por ello, el pasado 26 de diciembre presentaron una denuncia en Inspección de Trabajo para que se investigue lo sucedido. Los representantes de los trabajadores consideran que la empresa está haciendo mal las cosas al alargar el proceso –el juicio se debía haber celebrado en octubre– y al no haber cobrado los trabajadores varias nóminas atrasadas.

## MOBILIZAZIOAK EITB-N, AKORDIOAK EZ DIRELA BETETZEN SALATZEKO

EITBko langileek elkarretaratzea egin zuten urtarrilaren 30ean Bilboko egoitzaren atarian, zuzendaritzak duela hilabete hartutako akordioa ez duela betetzen salatzeko. Alor ezberdinetan batzarrak egin eta gero –Telebistak, Irratiak eta Administrazio Orokorra– langileek mobilizazioekin hasteko beharra azpimarratu zuten.

Joan zen abenduan egungo lan baldintzak mantentzearen konpromisoa hartu zuen EITBko zuzendaritzak, eta hilabete geroago iritzia aldatu du. ELAren aburuz erabaki honetan nabarmentzen da zuzendaritzaren negoziazio borondate eza.

**ELA pide que se sufrague la multa mediante un recargo del Impuesto sobre Sociedades y, si se confirma la multa, presentará una demanda penal contra los responsables políticos**

# ELA EXIGE RESPONSABILIDADES POLÍTICAS ANTE LA MULTA POR LAS VACACIONES FISCALES



Ante la decisión de la abogada general del Tribunal de Justicia de la Unión Europea (UE) de solicitar a dicho Tribunal que imponga una multa de 50 millones de euros a las haciendas de la CAPV por las vacaciones fiscales, ELA ha exigido que, que de una vez por todas, quienes tomaron esas decisiones asuman sus responsabilidades, al tiempo que ha anunciado la presentación de una demanda penal –por dolo– en caso de que el Tribunal confirme dicha multa.

En opinión del sindicato "no nos encontramos ante una negligencia irresponsable; es mucho más grave: nos encontramos ante un caso de dolo, ante actos decididos con ánimo de defraudar, protagonizados por responsables políticos".

Para ELA, los hechos probados demuestran la connivencia entre la patronal Confebask y las haciendas forales en la toma de esas decisiones, a la hora de retrasar el cumplimiento de los requerimientos y mentir sobre la recuperación de las ayudas, declaradas ilegales en 2006. "Ese proceder no ha sido un hecho aislado –denuncia el sindicato–. En todo lo relacionado con la fiscalidad, la falta de transparencia y participación social esconde un sistema que sólo beneficia a las rentas empresariales y al capital".

## QUE PAGUEN LOS RESPONSABLES

Por todo lo anterior, ELA ha exigido a las instituciones de la CAPV que no destinen ni un euro de la recaudación ordinaria a sufragar esta multa. ELA ya defendió en su día que de tener que hacer frente a una multa por estos hechos debería financiarse, exclusivamente, mediante un recargo específico en el Impuesto sobre Sociedades. "Son los responsables políticos de estas decisiones y la patronal quienes deben asumir la responsabilidad de su política antisocial, no la clase trabajadora ni el gasto social", ha argumentado el sindicato.

Finalmente, ELA ha descalificado declaraciones como las del portavoz del Gobierno vasco, Josu Erkoreka, en el sentido de que la multa es "una cuestión menor". "Que el responsable de un gobierno que se niega a destinar más de 20 millones a ayudas de emergencia social argumentando que no hay dinero, diga que pagar 50 millones es una "cuestión menor" es, además de una irresponsabilidad, otra muestra de al servicio de quién se hacen las políticas públicas", ha criticado el sindicato, al tiempo que ha denunciado que "con esta posición, el gobierno de Gasteiz pretende eludir cualquier responsabilidad política sobre lo sucedido, cosa que no vamos a permitir", ha concluido.

En caso de confirmarse la sanción de 50 millones de euros a las haciendas vascas por las llamadas vacaciones fiscales, se trataría de la sanción económica más elevada impuesta por el Tribunal de Luxemburgo en su historia.

*ELAk ardura politikoak eskatuko ditu opor fiskalen isuna dela-eta; auzitegiak isuna berresten badu, dolu kasuagatik demanda penala sartzeko asmoa du sindikatuak*

## LABURREAN / BREVES

### • La consejera Lourdes Goicoechea ha quedado invalidada para el cargo

ELA considera que Lourdes Goicoechea ha quedado invalidada para continuar en su cargo como consejera de Economía y Hacienda del Gobierno de Navarra, por privilegiar otros intereses y presiones ajenos al servicio público, y por erosionar la independencia y la profesionalidad del personal de Hacienda.

### • Alternativas al desafío ecológico

ELA participó los días 24 y 25 de enero en Ginebra en unas jornadas bajo el título *Alternativas al desafío ecológico.* Mikel Noval y Ainhara Plazaola fueron las personas encargadas de presentar las propuestas del sindicato. Para ELA, el actual modelo económico está agotado porque choca con una triple crisis: la ecológica, la social y la de la ciudadanía. En este sentido ELA defendió la necesidad de alianzas sindicales para favorecer un cambio. Por otra parte, abogó por decrecer y transformar aquellos sectores muy intensivos en el consumo de energía. Además defendió la regulación de los mercados financieros y gravar con un impuesto las transacciones financieras derivadas de actividades especulativas.

### • Garaia agerkaria, sarean

Manu Robles-Arangiz Fundazioa Institutuak *Garaia* agerkariaren laugarren alea kaleratu berri du, *La Navarra eterna ¿Quién manda aquí?* izenarekin. Publikazioa Fundazioaren web atalean eskuratu liteke: **http://www.mrafundazioa.org**

### • 8 de febrero, asamblea general de la Carta de los Derechos Sociales

La Carta de los Derechos Sociales de Euskal Herria celebrará una nueva Asamblea General el 8 de febrero en Gasteiz. La cita es en el Centro Cívico Aldabe, a partir de las 09:30. Entre otros aspectos se debatirán la presentación del informe elaborado por el grupo promotor y se buscará acordar el cronograma y los pasos a realizar.

**www.ela-sindikatua.org / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**


**Franqueo concertado nº 08/207**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela-sindikatua.org**